


aitziti!

LAUKIZKO EUSKARA ZERBITZUA

2014ko uztaila • 40 zenbakia



Aurrera Uda!



LIBURUTEGIA BIZIRIK!

Ez dira gutxi, aurtengo lehen zatian, herriko liburutegian aurrera eraman diren ekintzak. Otsailean Ipuin kontalari dibertigarri batekin hasi ginen, benetan barre ederrak egin genituela Kiriko Oilarrarekin!

Martxoan oso urrun bidaiatu genuen, maleta prestatu eta Hawairarte joan ginen. Kamisetak margozteka aukera ederra izan zen apirilera, eta hilabete honetan ere, Liburu eguna ospatu genuen trukemerkea praktikatu.

Maiatzean hormairudi kooperatiboa egin dugu eta bikaina izan da akuarelekin margoztu ahal izatea. Plazan eskegi genuen eta oso polita gelditu zen!

Baina ekintza guzti hauetaz gain, hilabetero liburu berriak erosten ditugu, web gunean zein facebook-en bidez argitaratzen dira eta berri hauek.

Aipatzekoa da Laukizko Liburutegiak, berdintasunaren aldeko 3 ipuin argitaratu ahal izateko laguntzailea izan dela, animatu eta etorri irakurtzera!, merezi du!.

Benetan bizirik dagoela Laukizko Liburutegia, izugarria izan da zenbat ume zein nagusi elkartu garen ekintza guztietan. Egia esateko primeran pasa dugu!!



UDALEKUAK 2014

Udaldiagaz batera, Laukizko udalekuak abian dagoz jadanik!!

Aurtengo edizioan 46 umek eman dabe izena uztailean zehar garatuko diran jardueretan parte hartuteko prest: kirol desbardinak, jokoak, txangoak herrian zehar... denetarik apur bat! Geldi behintzat ez dira egongo, hori ziur!. Txangoak be egingo dabez hondartzara (Bakio eta Gorlizera) eta Oma basoa ikustera.

Udan be, aukera ugari, umez beterik ... honek guztia, dakarren zorientasuna eta herriari emoten deutson bizitzagaz!

Ondo pasa!



"DOCE MIRADAS"

Martxoaren 12an oso hitzordu berezia izan genuen Laukizko liburutegian: "Doce miradas" (www.docemiradas.net) lankidetzaren blogarena, alegia.

19:00ak baino lehen talde honen "dozena erdi bat" bertaratu zitzaigun proiektu hau zergatik eta nola sortu zen azaltzera. Banan-banan hartu zuten hitza Ana Erostarbek, Arantxa Sainz de Murietak, Noemi Pastorrek, May Serranok, Pilar Kaltzadak eta Lorena Fernándezek. Bakoitzak kontatu zigun zergatik sartu zen honetan, zein garrantzitsua den emakumea ikustaraztea ikuspuntu ezberdinetatik eta edozein egoeratan. Haien artean pentsamendu ezberdinak zeudela eta horrek ematen ziola aberastasuna talde honi adierazi ziguten.

Benetan plazerra beraiekin tarte hau partekatu izana! Oso proiektu aberasgarria eta ezberdina!... eta gainera publikoki agertzen ziren lehen aldia! . Gerora, Deustuko Unibertsitatean egin zuten "aurkezpen ofiziala" maiatzaren 28an baina Laukizen hilabete batzuk lehenago izan genuen talde hau eta blog hau gertutik ezagutzeko aukera paregabea!



Hurrengo zitak

- **Irailak 19**, barikua: Ipuin kontalaria Liburutegian
- **Irailaren 26tik 28ra** Laukizko Jaiak
- **Urriak 24** Liburutegiko tailerra
- **Urriak 25** Ondarearen Europako Jardunaldiak: Bisita gidatua
- **Urriak 25** Argazki rallye-a
- **Azaroak 11** San Martin
- **Azaroak 14** Liburutegiko tailerra
- **Abenduak 5** Gabonetako Tailerra
- **Abenduak 23** Zinea euskaraz
- **Abenduak 29** Magia saioa
- **Abenduak 30** Tailerra

...eta honetaz gain...

EUSKARAREN EGUNA OSPATZEKO...

EUSKARAREN ALDEKO LELO TXAPELKETEA !!

Erne egon etxera helduko jatzun informazioari!!



LAUKIZ KIROLARIA

Udaberriarekin batera txirrindularitza etortzen da berriro Laukizera: martxoaren 9an eta 23an eta Euskadi Fundazioaren laguntzaz, mendiko bizikletaren eguna eta XIX Laukizko saria lehendakari txapelketa ospatu ziren 23 urte baino gutxiagorentzat. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu Laukizko Sariaren egunean, giro itzela izan genuen egun bietan.

Gauza bera gertatzen da Gaztedi Sokatira Taldeak ekitaldia daukan bakoitzean. Duela gutxi Irlandan egon ziren (Castlebarren, hain zuzen) bertan jokatu den goma-gaineko Munduko Txapelketan eta honako sari hauek ekarri dituzte:

Brontzezko domina, 600 kiloko modalitatean, mistoa, klubun arabera.

- Brontzezko domina, 540 kiloko modalitatean, neskak, klubun arabera.
- Zilarrezko domina, 500 kiloko modalitatean, neskak, klubun arabera.
- Brontzezko domina, 500 kiloko modalitatean, neskak, nazioen arabera.

Era berean, goma-gaineko Euskadiko Txapelketako sariak honako hauek izan dira:

- Txapeldunak, urrezko domina, 500 kiloko modalitatean, neskak.
- Zilarrezko domina, 540 kiloko modalitatean, neskak.
- Txapeldunak, urrezko domina, 600 kiloko modalitatean, mistoa.

Beraz, aurrera neska-mutilak!

Esku Pilotari dagokionez, Laukizko Piñu Pilota kirol-taldeak irabazi egin du Benjaminen eta Kadeteen kategoriatan, 12 udalerrik osatzen duten Uribe-Kostako Eskualdeko Txapelketan.

Hemendik ere, zorionak eta segi aurrera!!



LAUKIZKO KINTTOPEKO III SARIA

Hona hemen, Laukizen 2014ko maiatzaren 16, 17 eta 19an izandako proben sailkapena.



SAILKAPENA				
		untzak	laurden	metroak
1	ROMAN ELOSEGI (Zaldibia)	58	3/4	1,97
2	ARTAZA (Goiherri)	57		
3	OLIDEN (Orio)	55		
4	ERLETE (Itziar)	54	1/4	1,37
5	IZETA (Aia)	41	3/4	3,85
6	URIAGEREKA (Bakio)	38	1/2	5,06
7	CASERIO MINTEGI (Zeanuri)	38		3,25
8	ISIDRO ERRETEGIA (Azkoitia)	37	1/2	4,12
9	JON LA CRUZ (Gatika)	24	1/4	5,34

ALE HONETAN PARTE HARTU DABE

MARÍA FERNÁNDEZ
FERNANDO UNIBASO
SAIOA SANZ



LAUKIZKO
UDALA

Lauaxeta enparantza z/g
48111 LAUKIZ
94.615.10.51
www.laukiz.net

